



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea

“Habiditek ez dauela Aldundiaren euro bakar bat be jaso” esan dau Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuak Batzar Nagusietan

Bilbon, 2012ko azaroaren 13an

Imanol Pradales Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatu jaunak ukatu egin dau Batzar Nagusietan Aldundiak laguntzarik emon izana Habidite proiekturako. Behin baino gehiagotan esan dau Diputatuak gai horretan “ez dagoala inolako ondorenik”. “Bizkaiko Foru Aldundiak ez dau dirulaguntza publikoko euro bakar bat be emon Habidite proiekturako”, Socialistas Vascos Taldeak eskatuta Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean gaur izandako batzorderatzean, hain zuzen be sinatutako akordio hareek Europako Batzordeak «legez kontrako estatu-laguntza» lez joteak ekarriko leukezan ondorenez argibideak emon daizan eskatutako batzorderatzean.

Pradales jaunak esan dau enpresa horrek Alonsotegin lantegi bat eregiteko eta 1.500 etxebizitza modular egiteko Aldundiagaz izenpetutako hitzarmenak ez gauzatzea ekarriko eban prozesua Aldundiak berak abierazo ebal, behin ezagututa 2009ko apirilean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak urte horretako urtarrilean esaten ebal txosten baten hitzarmenok Europako Batzordeari jakinerazo beharra egoala. Aldundiak “erantzukizunez jokatu eban berehala jakinerazo eutsalako Europari sinatutakoa, inolako laguntza publikorik emon aurretik”. Europako Batzordeak berak “arrazoia emon euskun”, bere ebazpenean esan ebalako ez zala inolako laguntzarik emon; ez dago, beraz, “ezer berreskuratu beharrik”.

Hata guzti be, Diputatuak esan dau ez dagoala ados Europako Batzordeak emondako argudioagaz, esaten dauenean Aldundiari ahaztu egin jakola laguntzei buruzko aldezaurreko jakinerazpena bialtzea. Horren aurrean, Aldundiak demandea aurkeztu dau joandako irailaren 6an Europako Epaitegietan, eta bideraketarako onartu egin da, jakinerazpenik egon ez izanagaitik legez kanpoko laguntzatat jo izanaren kontra. Diputatuak generatu dau: “Denboraz eta eraz egin genduan”.

Bai Bildu Taldea bai Talde Popularra bat etorri dira Aldundiak jakinerazpena “berandu” egin ebal esaterakoan. Joseba Gezuraga Bildu Taldeko batzarkidearentzat, Aldundiaren kronologia “hankamotz” dago, Europari jakinerazpena bialtzerakoan baekialako Habidite proiektura bertan behera egoala. “Hitzarmena sinatu zanetik Europari jakinerazo arte urte 2 joan ziran” salatu dau Gonzalo Zorrilla PPko batzarkideak. Ondoren ekonomikoei jagokenez, oposizinoakoak bat etorri dira egon badagozala esaten, zuzenak ez badira be, eta aitatu dabez demandearen ondoriozko kostuak eta proiekturako erositako lurrak, adibidez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Formica enpresearen egoerea

Batzorderatze berean Diputatuak argibideak emon ditu Galdakaoko Formika enpresearen egoerearen inguruan, Azaldu egin ditu banan-banan Aldundiak langileakaz, Galdakaoko Udalagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz batera izandako 6 bilerak Formica Europako ordezkariakaz harik eta enpreseak 169 langile kaleratzeko EREa izango ebala iragarri ebanetik. Pradales jaunak esan dau multinazional horrek Galdakaon daukan lantegia zabalik mantentzeko egindako proposamenak ez dabezala onartu, bata bestearen atzean, enpresearen arduradunek.

Diputatuak tamalgarrizat jo dau Formica Europak beti erantzun izana ezetz langileen kaleratzeak eta enpresea iztea saihesteko erakunde publikoetatik egin jakozan proposamenei. Testuinguru horretan, aitatu dau inbertsore talde baten interesa lantegiaren ardurea hartzeko, baina oraingoz ez dagoala multinazionalaren ezezko erantzuna baino. Bildu Taldea izan da batzorderatzea eskatuta eukana, eta esan dau txalogarriak dirala lanpostuak mantentzeko egindako ahaleginak eta salatu egin dau Joseba Gezuraga batzarkidearen eritxiz lekualdatze kasu barria dana, “lan erreformek bultzatutakoa, langileak kaleratzea merkeagoa izatea dakarrelako”.

Arauz Besteko Proposamenak

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea goizeko 11:30etan hasi da, enpresa barritzaileak sortzeari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Beste?ko Proposamenaren eztabaideagaz. Horren bitartez, Bizkaiko Talde Popularrak eskatu gura izan dau 52/2010. Foru Dekretua aldatzea, enpresa barritzaileak sortzeko erispideak aldatu daitezcan. Popularrek gura izan dabe sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaitik kanpo daben enpresa eta sustatzaileek be jaso ahal izatea Enpresa Berritzaileak Sustatzeko Programako onurak, beti be gure Lurraldeon enpresa barritzaileak sortzen badabe. Gainontzeko Taldeak bat etorri dira esatean Aldundiaren dirulaguntza jasoten badabe enpresek, “gitxienez” eskatu behar dala enpresa onuradunok egoitza fiskala Bizkaian izatea.

Hurrengo, Batzordeak ahobatez onartu dau sexuen arteko bardintasuna suspertzeko eta desgaitasuna daben pertsonak gizarteratzea bultzatzeko politikak Bizkaiko Foru Aldundiak abiarazotako turismo-estrategietan sartzeari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Comisión de Economía y Hacienda

El Diputado foral de Promoción Económica asegura en Juntas Generales que Habidite “no ha recibido un solo euro de ayuda pública”

Bilbao, a 13 de noviembre de 2012

El Diputado foral de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha negado esta mañana en una comparecencia en las Juntas Generales que la Diputación haya concedido ayudas al proyecto Habidite. En reiteradas ocasiones, el diputado ha manifestado que “no hay consecuencia alguna”. La Diputación Foral de Bizkaia “no ha concedido un solo euro de ayuda pública al proyecto Habidite”. Así de rotundo se ha mostrado en la Comisión de Economía y Hacienda. Pradales ha acudido la cámara vizcaína a petición del Grupo Socialista que pedía explicaciones sobre las “consecuencias” que los convenios firmados con la empresa constructora Habidite iban a tener para las arcas forales.

El responsable foral ha destacado que el proceso para que la Diputación no ejecutara los convenios con esta empresa para levantar una fábrica en Alonsotegi y entregar 1.500 viviendas modulares, lo inició la propia Diputación en abril de 2009, tras conocer el informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en enero de ese mismo año, al poner en conocimiento de la Comisión Europea (CE) estos convenios. La Diputación “actuó con responsabilidad al comunicar inmediatamente estos hechos, antes de haber ejecutado ni una sola ayuda pública”. La propia Comisión en su pronunciamiento “nos ha dado la razón” al entender que no se ha otorgado ayuda alguna, por lo que “no hay nada que recuperar”, ha manifestado.

Sin embargo, el diputado ha mostrado sus discrepancias con que la Comisión argumente que la Diputación olvidó emitir una notificación previa sobre las ayudas. Frente a esto, el responsable foral ha anunciado que la Diputación ha presentado una demanda, admitida a trámite, ante los tribunales europeos el pasado 6 de septiembre, sobre la calificación de ilegalidad por falta de notificación. “Lo hicimos en tiempo y en forma”, ha defendido.

Tanto Bildu como el Grupo Popular han coincidido en señalar que la Diputación realizó esta comunicación “tarde”. Para el apoderado de Bildu Joseba Gezuraga, la cronología de la Diputación está “coja” ya que el ente foral sabía que el proyecto Habidite se había “caído” en el momento de comunicárselo a Europa. Desde la firma del convenio hasta la consulta a la Comisión Europea “han pasado 2 años”, ha denunciado Gonzalo Zorrilla del PP. En relación a las consecuencias económicas, la oposición ha coincidido en señalar que sí existen, aunque no de manera directa, apuntando como gastos los costes derivados de la demanda y la compra de suelo para desarrollar el proyecto.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Situación de Formica

En la misma sesión, el diputado ha tenido que informar de las gestiones realizadas por la Diputación ante la situación generada en la empresa Formica de Galdakao. Tras enumerar y explicar las seis reuniones mantenidas con representantes de los trabajadores, el ayuntamiento de Galdakao, el Gobierno Vasco, y la propia Diputación con directivos de Formica Europa, desde que esta empresa anunciara el ERE para despedir a 169 trabajadores, Pradales ha confirmado que las propuestas por mantener abierta la planta de la multinacional en Galdakao han sido rechazadas, una tras otra, por los responsables de la empresa.

El diputado ha lamentado que Formica Europa haya respondido siempre negativamente a los planteamientos de las instituciones públicas para llegar a un acuerdo que evitara los despidos y el cierre. En este contexto, ha citado el interés de un grupo de inversores por hacerse con la planta, sin resultados aún por la negativa continua de la multinacional a dar su conformidad. El grupo Bildu, solicitante de la comparecencia, ha destacado los esfuerzos por mantener los puestos de trabajo y ha denunciado lo que para Joseba Gezuraga es un nuevo caso de deslocalización, “consecuencia de una reforma laboral que permite un despido más barato”.

Proposiciones No de Norma

La comisión de Economía y Hacienda ha comenzado a las 11.30 horas con una Proposición No de Norma del Grupo Popular que reclamaba a la Diputación cambios en el Decreto Foral 52/2012 con el fin de modificar el criterio que rigen las ayudas a la creación de empresas innovadoras. El resto de grupos ha rechazado la pretensión de los populares para que personas o entidades con sede social y fiscal fuera de Bizkaia, pudieran ser beneficiarias de las ayudas que se dan en el Programa de Creación de Empresas Innovadoras. Los grupos han coincidido en señalar que “lo mínimo”, si reciben ayudas de la Diputación, es pedir que las empresas beneficiarias tengan su sede fiscal en Bizkaia.

A continuación, la comisión ha aprobado por unanimidad una iniciativa del Grupo Socialista que buscaba “revisar las estrategias de la política de turismo” para que se tengan en cuenta las propuestas que fomenten la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, así como la inclusión de personas con discapacidad.